

EKONOMIA TA LAN MUNDUA

(2013-02-01)

Bermeoko Kultur Etxean

BILERAREN ERREALITATEA

PARTAIDE KOPURUA: 12 pertsona (Amaia Elortza, Idurre Bideguren, Javier Urkijo, Imanol Rodríguez, Ekaitz, Bego Gangoit, Gaizka Ormaza, Gaizka Aurrekoetxea, Esteban, Iruna Ormaetxea, Aritz eta Maitane)

UDALETIK

- Turismo teknikaria
- Turismo zinegotzia, lurgintza zinegotzia eta alkatea
- Ingurumen teknikaria

DINAMIZATZAILEA
IDAZKARIA
BOZERAMAILEAK / ORDEZKARITZA

Maitane
Gaizka Aurrekoetxea
0

BILERA ORDUA:
LEKUA

19:30 – 21:15
KULTUR ETXEAN

GAI-ORDENA

- Aurkezpena, aktaren onarpena eta akta hartzailea zehaztea
- Bizkaibus zerbitzuari egindako alegazioen erantzuna
- Turismoaren gaian proposamenak zehaztea
- Gaiaren balorazioa
- Hurrengo gaia eta eguna zehaztea. Saioaren balorazioa

EZTABAIDATUTAKO GAIK

- Turismoaren gaian proposamenak zehaztea
Gaizka Ormaza: datuen arabera, Bermeora datozen %95a san Juan de Gaztelugatxe (aurrerantzean, san Juan) ikustera datoz. Honek argi adierazten dau leku honen garrantzia Bermeoko turismoa indartu gura ba da. Arazo garrantzitsu bat da Bermeoko hirigunea urrun dagoala. Bestalde, orokorrean Bermeo gitxi agertzen da Urdaibairi buruzko turismo materialetan.

Bego Gangoiti: hau sarritan gertatzen da honako materialetan udalerrri guztiek bardin ordaintzen dabelako, horregatik espazioa be proportzio berean erabiltzen da.

Idurre: gure herriaren promozioa, marketing-a udalak bultzatu behar dau. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak material asko ataratzen dabez eta hor ez daukagu zeregin handirik. Eurek bere lana egiten dabe bisitariak san Juaneraino ekartzeko. Gure ahalegina izan behar da hori aprobetxatzea bisitari horreek Bermeora erakartzeko.

Esteban: Googlen “Gaztelugatxe” asko bilatzen da, baina arazoa da ez dala agertzen Bermeogaz lotuta. Hori aldatu egin behar da. Bermeo derrigorrez agertu beharko litzateke Gaztelugatxe bilatu ezker lehengoko 5 emaitzetan, bisitariak san Juan eta Bermeo hasierarik elkar lotzeko. Hau egitea oso erraza eta merkea da (3000 euro inguru) eta onura handikoa izan daiteke Bermeorentzat. Googleren arabera, Bizkaiko hiru leku bisitatuenak dira Bizkaia zubia, Guggenheim museoa eta Gaztelugatxe. Leku honen potentzial izugarria aprobetxatu behar dogu eta egun baliabide turistiko hau ez da behar legoken moduan erabiltzen.

Bego: San Juanera doan jendea Bermeora erakartzeko, lekuan bertan zeozer egin behar da, ze handik Bermeo urrun egiten da, ikusi be ez da egiten, Bakio aldiz bai; horregatik guk aparteko ahalegina egin behar dogu, jendea berez ez jaku etorriko ta. Bestetik, Mundakak eta Gernikak berak be Bermeori turistikoko lagundu egiten deutso ze danan artean eskaintza zabalagoa sortzen da bisitari gehiago erakartzeko.

Esteban: Ezinbestekoa da informazio eske dabil edonorentzat, argi bereiztea Bermeo beste antzeko kostaldeko beste herriengandik (Ondarru, Mutriku, Plentzia ...). Egun kanpotik Bermeo beste herri batelez ikusten da, ez dauka ezer kanpokoentzat argi bereizten dauanik.

Idurre: Gainera, kostaldeari buruz saltzen dana da “Bizkaiko Kosta”, bertan herri guztiek maila berean agertzen dira.

Gaizka O. Bere proposamena azaltzen dau Bermeon turismoa bultzatzeko, san Juanera joateko emon beharreko hiru pausoetan oinarrituta (aparteko orriak ikusi): kultura / arrantza / industria.

Ekaitz: Bardin be, bere proposamena aurkezten dau san Juan eta Bermeoren arteko lotura automatikoa sortzeko (aparteko orria dago). Gehienbat azpimarratzen dau san Juan belaontzi estropada ekimena sortzearen ideia, antolatzea erraza ikusten daualako (Galerna taldekoek prest legokez) eta ustez eragin handikoa. Bestetik, aipatzen dau san Juanera itsasoz joatea be bultzatu beharko litzatekeela.

Idurre: San Juan eta Bermeo lotu ostean, ondo prestatuta eduki beharko genduke Bermeon zer erakutsi eta zer eskaini, bestela jendea etorri bai baina gero dezepzioa sor daikezu eta akabo ahalegin guztiak.

Bego: turismo sailetik espresuki eskatu eutsien “hegaluze” itsasontzikoei san Juanera itsasoz joateko.

Idurre: Honen arira, “Itsasaldia” izeneko programa dago itsasoari lotutako ekimenak sustatzeko.

Bego: Jadanik ba dago proposamen bat, Orbela enpresak egindakoa, san Juan eta Matxitxako biak batera elementu turistiko lez antolatzeko. Kontutan izan Matxitxakok be balio turistiko handia daukala (Matxitxako lurmuturra bera, faroa, itsas animalientzako behatoki barria, gerra zibileko kanoien aztarnak, *armeria euskariensis* ...). Proiektu honen barruan gauza desberdinak planteatzen dira, besteak beste, ingurua ondo seinalezatzea (orain oso txarto dago), aparkaleku bat egitea Foru Aldundiaren merenderoan eta bertan informazio puntu bat sortu, etab. Lekua oso aproposa izango litzateke kotxea ixteko eta gero handik oinez joateko San Juanera errepide zaharretik edo baita be Matxitxakora talaieroaren bidea erabilita. Elementu biak batera eskeiniz gero, produktu indartsu bar sor liteke. Gaizka Ormazak eransten dau aterpe bat edo antzeko zeozer estalia egiteko be leku aproposa dala.

Aritz: Proiektu hori berreskuratu egin beharko zan, orain geldituta dago. Jarraian, bere proposamena aurkezten dau, “*itsas mundua lehorrean*” lelopean. Herri barrutik ibilbide bat egitea proposatzen dau 8 puntutan banatuta eta ibilbide hau aprobeztatuz Bermeoko arlo esanguratsuenak erakutsi (historia, artea, ohiturak, arrantza mundua, etab.). Hona hemen zortzi puntuak: Aita Guria / Kofradi zaharra / portuzarra / Baztarre / Tala / san Juan portale / Torrontero / Gaztelugatxe.

Esteban: aipatzen dau ibilbide hori telefono mugikorretik jarraitzeko aplikazioa be sortu daitekeela.

Bego: komenta dau Bermeotik ibilbide gidatuak egiteko arazoak dagozala elbarrituentzako aldats asko dagoalako, alde zaharrean batez be, eta leku batzuetara joateko irisgarritasun arazoak dagozalako, adibidez, eskaloi bat klaustrora sartzeko.

Maitane: Proposatzen dau hurrengo batzarrerako honako gaiak jorratzea:

- Aritzen proposamena landu
- Gaizka O. eta Ekaitzen proposamenak landu

Idurre: Ideia moduan, aipatzen dau aprobeztatzea daitekeela aurton Bilboko Arte Ederretako museoak erretrospektiba bat antolatu gura dauala Nestor Basterretxearen obrari buruz hango bisitariari eskaintzeko Bermeora etortzea herrrian zehar dagozan Nestoren eskulturak/ibilbidea ikusteko. Aritzek komentatzen dau horretarako Museoarekin adostu behar litzatekeela horri buruz material didaktiko bat sortzeko. Idurrek bere aldetik esaten dau eztabaida bat dagoala arte munduan arte obrak erakusteko orduan: bisitariari azalpen guztiak emon behar jakoz edo itzi bakoitzari obren aurrean ia zelako sentimenduak sortarazten deitsozan.

Hau horrela, gabeko 21:15ak dirala, batzarra amaitutzat emoten da.

DATORREN BILERAKO GAI-ORDENA:

- Bizkaibus zerbitzuari egindako alegazioen erantzuna (aurreneko batzarretik landu barik geratu da)
- Edertasun Planaren konklusioen aurkezpena eta eztabaida
- Aritz, Gaizka O. eta Ekaitz batzarkideek egindako proposamenak landu

HURRENGOKO BATZARRA

Otsailaren 18an, astelehena, arratsaldeko 19:30etan Kultur Etxean.